

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko urtarrilak 16 · 1381 zenbakia

DUINTASUNAREN ALDARRIA

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI

ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti
babeztuta egongo
den **garantia**

GREMIOEN GIDA

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Ifnoa: 943 12 73 60
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
610 532 922 www.thelecer.com

24 orduko
urgentziak

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARILOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com

eta faxa:
943 203 903

AROTZAK



**aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA**
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Ifnoa: 943 12 13 67 / www.ulmar.net

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobear
goza dezozun

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabilioia
Ifnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

IÑAKI
pinturak eta lurak

Tel. 647 902 208
Bidebarrieta, 21 - behea

GARBIKETAK



Garbihome

Etxe, atari, bulego, merkataritza lokal
eta komunitateetarako garbiketa
zerbitzuak eskaintzen ditugu

642 456 472
info@garbihome.com
garbihome.com

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan



Bertsozalea bazara eta ezin izan bazinen 2025eko San Andres Bertso jaialdian egon, edo bertan egon bazinen eta ikuskizuna berriz bizi nahi baduzu, ekitaldi osoaren bideoa ikusgai jarri dugu gure YouTubeko kanalean.

www.etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Silbia

Hernandez, Irune Jaio eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Irune Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Ontziola bat eta pasealeku bat

Askotan, zifra ekonomiko oso handiak aurkezten dizkigutenean, asko jota, poltsikoan 60 euro daramatzagunok ez dakigu zenbaki handi horiek zer esan nahi duten. Gaur, zerbait ulertu ahal izateko, gaurkotasuneko albiste batean zentratu nahi dugu.

2024an, Zumaiako Balenciaga ontziolak hartzekodunen konkurtsoan sartzea eskatu zuen. Gipuzkoako ontziolaren egoera oso larria zen eta bere itxiera gerturatzeko ari zen. Itxiera horrek zuzenean eragiten zien 70 langile baino gehiagori, haien familiei eta zeharkako 600 lanpostu ingururi.

2026ko urtarrilean, langileek batzarrean berretsi ondoren, behin betiko akordioa lortu da, Abu Dhabi Ports Group emiratar partzuergoak eta Premier Marinek (Safeen Drydook-en bidez) Gipuzkoako ontziola erosi eta industria-jarduerara balioztatzeko.

Eibarko Auzo Elkarteari oso deigarria iruditzen zaigu Arabiar Emirerri Batuetako partzuergoak Balenciaga ontziolaren martxan dagoen industria-jarduera eskuratu izana: ekoizpen-instalazioak, makineria, lotutako eskubideak eta ontzigintzarako kontratu- eta giza oinarria, 11.200.000 €-tan. Eta Eibarko paseoa -1km-, oraingoz, 24.500.000 € kostatu izana. (Obra oraindik ez da amaitu).

Kilometro bateko paseoak ontziola baten erosketaren bikoitza balio du.

Deigarria, harrigarria eta sinestezina!

**Ez lurperatzen gaituen pasealekuari
Ekialdea bai auzo elkarte**

Hortik esanak



Inoiz gimnasio batera sartu denak ongi daki zergatik den produzitua ahultasun hori. Zein tresna dituzte emakumeek haien gorputzak gizonek bezala indartzeko (denbora, espazioa, dirua...)? Zein baldintza ekonomikotan ari dira prestatzen zure eskualdeko emakume kirolariak? Eta gizonak? Zein espazio propio dauzkate? Zenbat emakume profesional daude eta zenbat gizon? Noiztik ari dira emakumeak kirolean, zein baldintzatan eta zein helbururekin? Zerekin egiten dute amets 14 urteko neskek eta mutilek? Zenbat mendetan zehar errepikatu da hau? Zertara egin da gorputz bakoitza eta zertara egiteko aukera ematen zaio egun? Galdera hauei erantzun gabe determinismo biologikoaz, gaitasun fisiologikoez eta esentzialismo unibertsalaz hitz egitea txapuza patriarkal bat baino ez da.

ANER PERITZ

Politika hori, aldi berean, Girouxek behin eta berriz dioen bezala, pedagogia bat da, “nazioari krudeltasuna indarra-ekin parekatzen irakasten baitio”. Maduroren bahiketa AArekin sortutako bideoekin jaso du X sare sozialak, umore zakarrez, atxilotetaren momentuko bere egoeraz iseka eginez -gehienetan DJ bihurtuz- edo kartzelan erakutsiz, Sean 'Diddy' Combs-ekin ziega partekatuz, besteak beste. Pedagogia honen arazoetako bat, eta ez txikiena, noski, Trumpik gabeko trumpismoaren jarraipenari lekua egiten zaiola, eta Estatu Batuetako hiritarrak, eta hedaduraz, mendebaldar asko, Jilli Filipovicek New Statemanerako idatzi zuen bezala, “krudelkeriaz hartuak izan nahi duten” eta “ikuskizun basatia nahi duten buruzagi bat maite duten, barre eragiten dien eta entretenitzen dituen” ikusle bihurtzen dituela.

ANGEL FERRERO, kazetaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PLAGA → Izurria, kaltea, gaixotasuna. “Aurten arbixak plagia dakar”.

PLANTA → Itxura, irudia. “Zer planta dok hori, gaur atara duana?”

INOREN PLANTAK EGIN → Norbaiten imitazioa egin. “Kaitano eta Boni Txanboliñ, iñon plantak egiten, gizon barregarrixak”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 16
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 17
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
DOMEKA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 19
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
MARTITZENA 20
EGUNEZ Barandela (Ziriako Agirre, 4)
EGUAZTENA 21
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 22
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
BARIXAKUA 23
EGUNEZ Elortza (Juan Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Emilia Martin Alonso**. 2026-I-09.
- **Mertxe Iturriagagoitia Mallagarai**. 2026-I-09.
- **Juan Luis Rodriguez Astigarraga "Txatua"**. 82 urte. 2026-I-10.
- **Mariasun Oteiza Agirre**. 77 urte. 2026-I-11.
- **Jose Alberto Agote Txurruka**. 77 urte. 2026-I-11.
- **Jesusa Garagarza Osoro**. 94 urte. 2026-I-14.



Ugartetxea erosi du Udalak, Txontan babeseko etxeentzat aparkalekua sortzeko

S.H. Eibarko Udalak Ugartetxea eraikina (Txonta kalea, 30) erosi du, Txonta auzoan aurreikusita dauden 200 babes sozialeko etxebizitzari lotutako aparkaleku bihurtzeko. Udalak duela hilabete jakinarazi zuen erosketa Eusko Jaurlaritzak emandako milioi bat euro arteko zuzeneko dirulaguntzari esker gauzatu ahal izan dela. Ugartetxea duela hainbat hamarkada eraiki zen, baina ordutik ez da inoiz erabili. Udalak nabarmendu duenez, behin eraikina eskuratuta, hutsik zegoen espazio bat berre-

rabiliko da, lurzoru gehiago okupatu gabe eta hirigintzan kalterik eragin gabe.

Jarduketa hau Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aldaketa puntual baten barruan kokatzen da, eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailarekin adostuta dago. Udalak jakinarazi du Ugartetxea eskuratzeko hiria eraldatzeko estrategia zabalago baten parte dela, eta helburuen artean Txonta auzoa "bizigarriagoa, irisgarriagoa eta egungo beharretara egokituagoa" bihurtzeko asmoa dutela.

Mariasun Oteiza Agirre bertsozale eta gai-jartzailea hil da

S.H. Altzolan jaio baina Eibarren bizi izan den Mariasun Oteiza Agirre bertsozale eta gai-jartzailea hil egin zen domekan (urtarrilak 11), 77 urterekin. Bertsolaritzaren munduan emakume aitzindarietako bat izan da bera, 1980az geroztik hainbat bertso-saio eta lehiaketatan gai-jartzaile lanetan ibili izan zelarik. Bertso eskolan irakasle ere izan zen Debabarreneko hainbat herritan, eskolak eta Egasa enpresan lan-importazioko makinaria saltzen egiten zuen lanarekin uztartuta. Goian bego.



Ipuruako Merkatu Plaza elkarteak agenda bete-betea prestatu du urtarrilerako

S.H. Goiener elkarteko Santiago Ochoa de Eribe energia berriztagarrien sorkuntza eta burujabetasunari buruz arituko da Eibarren, urtarrilaren 24an (zapateria) 11:30etik 13:30era Ipuruako Merkatu Plazan egingo den hitzaldian (euskaraz izango da). Indartsu ekin diote urte berriari Ipuruako Merkatukoek, asteburu horretarako beste bi jardue-
ra gehiago antolatu dituzte eta: ur-

tarrilaren 25ean (domeka) *Grandes capacidades* (Gaitasun handiak) izenburuko hitzaldia emango dute Maider Beldak eta Olatz Alberdik, 11:00etatik 14:30era (gaztelera); eta egun berean, baina 15:00etatik 19:00etara, *Meshtastic* tailerra eskainiko dute, kit-a sortzeko. Plaza mugatuak dira eta izen-emateak 25 euro balio du (WhatsApp bidez, 614131174 zenbakian).



‘Eibarko Industrien Ekosarea’ programaren bigarren edizioa abiatu du Udalak

S.H. Eibarko Udalak, Ekonomia Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailaren bitartez, Eibarko Industrien Ekosarea programa abiarazi du bigarren bez, eta horren aurkezpena egin dute aste honetan Jon Iraola alkateak, Vanesa Hortas Ekonomia Garapen, Enplegu eta Berrikuntza zinegotziak eta programakudeatuko duen Ondoan enpresako Aitziber Garamendik. Azaldu dutenez, programak herriko industria-enpresen jasagarritasuna eta lehiakortasuna bultzatuko ditu, ingurumen- eta energia-neurriak ezarrit. Instalazioen ingeniartzan, mantentze-lanetan, energian eta ingurumenean espezializatuta dagoen Ondoan enpresak gestiona-tuko du programa, eta parte har-

tzen duten enpresei ingurumen-eta energia-aholkularitzako zerbitzuak emango dizkie, doan.

Egoitza soziala Eibarren duten eta jasagarritasunarekin konprometituta dauden industria-enpresei zuzenduta dago ekimena, eta izen-ematea zabalik dago, otsailaren 6ra arte. Bestetik, parte hartzeko interesa duten enpresek urtarrilaren 23an egingo den online saioan jaso ahalko dute informazio zehatzagoa. Ekimenari zein eskainiko dituzten zerbitzuei buruz gehiago jakiteko, www.eibarkoindustrienekosarea.eus programaren orria kontsultatu daiteke, edo zuzenean harremanetan ipini Ondoan enpresarekin (943 771 587; ekosarea@ondoan.com).



Administrazioarekin mugikorretik erraz aritzen ikasteko saioa egingo da

S.H. Espainiako Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztzak sustatutako “Administrazioa zuzandik gertu” programaren eskutik, Administrazioarekin mugikorretik modu errazean harremanak izaten ikasteko saio praktikoa egingo da urtarrilaren 26an (astelehena), Udaltzatza Aretoan (udaltzetxean), 16:00etatik 18:00etara. Parte-hartzaileek Administrazio Digitala erabiltzen, ziurtagiri digitala lortzen eta zerbitzu publikoetara online sartzen ikasiko dute, besteak beste. Antolatzailearen berbetan “prestakuntza hurbila eskainiko da, adinekoentzat, ikasleentzat, ETEentzat eta kolektiboentzat”. Interesdunek izena lehenbailehen eman beharko dute, plaza mugatuak dira eta (15 lagunentzat). Horretarako, alkatetza@eibar.eus helbidera idatzi beharko dute, izen-abizenak eta telefonoa ipinita.

Izadi
LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORRA ETALA LANDARE
NATURALA ETALA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak ekoera

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus



Ohiturari jarraituta, Klub Deportibokoek Urko puntan hasi zuten 2026. urtea

S.H. Urtero bezala, eibartar askok Urko puntan ospatu nahi izan zuten urte berriaren hasiera. Eguraldi “mundiala” eta eguzkia lagun, Eibarko Klub Deportibokoek pozarren egin zuten urteroko argazkia, “10:30etako ordua errespetatzen”. Horrez gain, Eibarko Mendiak Bizirik herri-plaformakoek ere argazkia egin zuten, Deporrekoeekin batera, “Energia berritzagarriak bai, gure mendietan makroproiekturik ez” aldarrikatzeko pankartarekin.



Bihar arratsaldean eskainiko dituzte doako bisita gidatuak Armagintzaren Museoa

S.H. Eibarko Armagintzaren Museoa asteburu honetan egingo du hilero eskaintzen duen doako bisita gidatua, Museoko erakusketa iraunkorra ezagutzeko interesa dutenentzat. Bihar (zapateria, urtarrilak 17) izango da, 17:00etan euskaraz eta 18:30ean gazteleraz. Interesa izanez gero, aurretik izena eman behar da, Museoko posta elektronikora mezua idatzita (museoa@eibar.eus), edo telefonoz deituta (943 708446).

Matsaria ingurua berroneratzeko pausoak ematen hasi da Udala

S.H. Aste honetan bertan jakinarazi dutenez, joan den abenduaren 30ean, Udalak ABC enpresak Matsarian zituen lokal zaharrak erosteko aukera-kontratua sinatu zuen, eta aurten erosiko du eraikina. Jarduketa Matsariako industrialdea berroneratzeko proiektuaren barruan sartzen da, Debarrena Eskualdeko Plan Estrategikoaren testuinguruan, eta industrialdeko oinezkoen eta ibilgailuen arteko lotura hobetzea du xede. Adierazi dutenez, “Udalaren helburua industrialdea berroneratzea eta hobetzea da, batez ere hirigunetik hurbilen dagoen eremua”.



Errepublikasasoiko maistrei buruz arituko dira Emakumeen Istorioak bideo-forum saioan

S.H. Datorren martitzenean, urtarrilaren 20an egingo da Emakumeen Istorioak, Pagatxaren bideo-forum feministaren hurrengo saioa, 17:00etatik 19:00etara Andretxean. Oraingo honetan Bigarren Errepublikako maistrak izango dira protagonista. Proiektzioaren ondorengo solasaldia Patricia Perex Cotok dinamizatuko du eta sarrera libreza izango da.



Giro ederrean ospatu zuten urteroko Gabonetako bazkaria

S.H. Urteroko martxan, Errege egunaren osteko lehen zapatuan, urtarilaren 10ean egin zen Auzokoak elkarteak Gureak-eko langileei eskaintzen dien Gabonetako bazkaria. Auzokoak elkartearen barruan Eibarko hainbat elkarte gastronomiko daude: Edozer, Urkusu-Gain, Erdi-Bana, Jaiki, Dorrepe, Denon Saha-tsa eta Bekuak, eta 1981ean hasi ziren ekitaldi hau elkarrekin presta-

tzen. Aurretik Edozer elkarteak antolatzen zuen. Aurtengoa 41. edizioa izan da, eta betiko moduan ederto pasatu zuten gonbidatuek. Menuarekin ere pozik egon ziren: paella, xerra piperrekin, pastak eta kafeak jan zituzten, eta antolatzaileek esan digutenez, bazkalostean “dantzak, besarkadak, diskurtsoak... bizi izan genituen. Gogoan izan zuten aurten hildako taldekide bat ere”. Gainera,

babesleen laguntzari esker, opariak ere banatu zituzten. Bazkaria prestatzen eta jaia antolatzen aritu ziren boluntarioak, berriz, Iker Badiola, Josu Mendicute, Iñaki Arregi, Rafa Martinez, Asier Maiztegi, Jon Peña, Iker Guenaga, Xabier Arrizabalaga, Asier Lasa, Anton Bermudez, Xavier Uzkudun, Alex Bordas, Ane Bordas eta Aitor Aizpurua izan ziren. Auzokoak elkartearen hurrengo ekimena otsailean, Santa Ageda bezperan izango da: egun horretan santeskean ibiltzen den abesbatzarentzat afaria prestatzen dute (argazkiak: Auzokoak).

FUNEUSKADI
Gurea hain

TANATOSIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATOSIO GORRITIAI

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Elgoibar: Xaillon, s/n, SIGMA Industrialdea (Olaioa hilerriaren ondoan)
Ermusko bulegoa: Marquis de Valdespina, 15

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

Urteurren, 11 - solairuarekin
publizitatea@etakitto.eus

688 62 76 89

ETENIK EZ DUEN ZORTZI URTEKO BORROKA

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua hasi zela zortzi urte bete berri dira eta, zortzi urte hauetako borroka ospatzeko, Eibarko Pentsionisten Taldeak deituta bihar zapatua manifestazioa egingo da, 12:00etan Untzagatik hasita. “HEL aurrera. Pentsio duinak guztientzat” izango da goiburua eta ondoren, 14:30ean herri-bazkaria egingo da Errebal Plazan.

2018ko hasiera hartan, gutxik irudika zezaketen astelehen batez plazan elkartutako pentsiodun talde hark Euskal Herriko azken urteotako mugimendu sozial iraunkor eta eraginkorrenetako bat abiaraziko zuenik. Mugimendua hasteko arrazoi nagusiak pentsioen erosahaltenaren galera, KPIarekiko loturaren haustura eta erreforma berrien mehatxua izan ziren. Haserrea eta kezka partekatu horietatik abiatuta, astelehenero milaka lagun herrietako plazak hartzen hasi ziren. Pentsio publiko eta duinak denontzat eskatzen sortu zen mugimenduak, baina, ez du pentsioen gaia plazaratu soilik: zahartzaro duina, zerbitzu publiko sendoak eta belaunaldien arteko elkartasuna ere eztabaidaren erdigunean jartzea lortu du.





LORPEN GARRANTZITSUAK ETA ERRONKA HANDIAK MAHAI GAINEAN

Etenbariko borroka horrek emaitzak izan ditu. KPIaren arabeko pentsioen eguneraketa berriro onartu izana ezin da ulertu kale-presiorik gabe. Gutxieneko pentsioen inguruko eztabaida soziala normalizatzea, pentsio publikoen defentsa irmoa eta pribatizazio-mehatzuen aurkako kontzientzia zabaltzea ere lorpen garrantzitsuak dira. Gainera, mugimenduak erakutsi du adinak ez duela aktibismoa mugatzen, eta partehartze politikoak bizitza osoa har dezakeela.

Pentsioen gaian aurrera egitea zaila dela aitortu arren, Eibarko Pentsionisten Taldeak orain arte emandako pausoen inguruko irakurketa positiboa egiten du: “Askotan oso pesimistak izaten gara, batez ere Gasteizko gobernuan eztabaidarako aurkeztu genuen herri ekimen legegilearekin gertatutakoagatik. Egia esan, harridura handia izan zen ikustea, 142.000 sinadura baino gehiagoren babesa izan arren, bai alderdi sozialistak bai EAJk eztabaidatzeari ere uko egin ziotela. Jarrera hori guztiz antidemokratikoa izan zen. Gainera, ekimenari uko egin zioten dirurik ez zegoela argudiatuta, baina diru hori Euskal Herriaren kokatutako enpresa handi batzuei barkatutakotik atera zitekeen, Repsolen kasuan bezala. Horrek kalte handia egin die batez ere gutxieneko pentsioa kobratzen dutenei. Horietako asko emakumeak dira, eta asko alargunak ere bai. Seme-alabengatik, familiengatik... bizitza osoa borrokatzen eman eta gero, oso tristea da ikustea nola, bakarrik geratu direnean, askotan ez dutela berogailua pizteko adina ere. Gutxieneko pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatara parekatzeko gure proposamena onartu balitz, 100.000 pertsona inguruk izango lukete onura, eta horietatik 76.000 emakumeak lirakeke”.

Borrokari esker aurrerapauso batzuk eman arren, bidea ez da amaitu. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendutik behin eta berriz gogorarazi dutenez, “milaka pentsiodunek pobrezia-atalasearen azpitik jarraitzen dute, eta gutxieneko pentsio duinak lortzea premiazkoa da. Emakume pentsiodunek jasaten duten genero-arrakala oraindik handia da, lan-ibilbide prekario eta ikusezinen ondorio zuzena. Bestalde, lan-merkatuaren prekarizazioak eta gazteen ziurgabetasunak etorkizuneko pentsioak kolokan jartzen dituzte. Horregatik, mugimenduak erronka nagusi bat du: belaunaldi berriekin zubiak eraikitzea, gaurko borroka biharko eskubidea dela ulertarazteko”.

Zortzi urte igaro dira lehenengo pankartak plazetan zabaldu zirenetik, baina orduko mezua indarrean dago oraindik: “Pentsio duinak eskubidea dira, ez pribilegioa. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak erakutsi du antolakuntza iraunkorrak eta konpromiso kolektiboak aldaketak eragin ditzaketela. Lortutakoa garrantzitsua da, baina oraindik egiteko asko dago”. Bitartean, astelehenek hitzordu izaten jarraituko dute.



EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUA: 8 URTEKO KRONOLOGIA



Pausoak:

Astelehenero mobilizazioak hasten dira Euskal Herriko dozenaka h erritan.

Aldarrikapenak:

Pentsioen KPIaren arabera eguneraketa %0,25eko igoeren amaiera. Pentsio publiko duinak.

Lorpenak:

Mugimenduaren sorrera eta sare herritar autonomo zabal baten eraikuntza.

HASIERA ETA EZTANDA SOZIALA

2018

PANDEMIAREN URTEA

2020

Pausoak:

Kale mobilizazioak eten arren, aldarrikapenak jarraipena dute. Komunikazio eta koordinazio berriak.

Aldarrikapenak:

Adinekoen eskubideen defentsa osasun-krisian. Pentsioen blindaje soziala.

Lorpenak:

Mugimenduaren biziraupena eta kohesioa baldintza zailetan.

Pausoak:

Astelehenetako mobilizazioak berrabiatzen dira. Manifestazio handiak hiriburuetan.

Aldarrikapenak:

KPIarekiko lotura lege bidez bermatzea. Pentsioen galera historikoa ez konpentsatzea salatzea.

Lorpenak:

KPIaren arabera eguneraketa berriro onartua izatea Estatu mailan.

2021

KALERA ITZULERA



2023



GENERO-ARRAKALA ETA LURRALDE IKUSPE- GIA

Pausoak:

Emakume pentsiodunen protagonismo handiagoa.

Nafarroa eta EAEko eskumen propioen aldarrikapena.

Aldarrikapenak:

Genero-arrakala ixtea.

Pentsioen kudeaketa propioa.

Lorpenak:

Genero-desberdintasunaren aitortza sozial eta politikoa.

2022

GUTXIENEO PENTSIOEN EZTABAIDA



Pausoak:

Gutxieneko pentsioen inguruko kanpaina bereziak. Instituzioei presio zuzena.

Aldarrikapenak:

Gutxieneko pentsioak pobrezia-atalasera iristea. Emakume pentsiodunen egoera hobetzea.

Lorpenak:

Gutxieneko pentsioen igoerak, nahiz eta eskasak izan.



2025

8. URTEURRENA

Pausoak:

Borrokaren balantzea eta etorkizuneko estrategien eztabaida. Mobilizazioari eustea.

Aldarrikapenak:

Gutxieneko pentsio duinak orain. Sistema publikoaren blindajea.

Lorpenak:

8 urtez jarraian mobilizazio iraunkorra mantentzea. Erreferente sozial bihurtzea Euskal Herrian.

“Desobedientzia zibila zenbat eta presenteago egon, orduan eta osasuntsuagoa da demokrazia”

MIREIA GABILONDO • Gidoigile eta zuzendaria



Desobedientzia zibila, memoria historikoa eta demokraziaren mugak jartzen ditu erdigunean Desobedienteak 18/98 antzezlanak. 18/98 sumarioaren harira, fikzioa eta dokumentazioa uztartzen dituen lanak hausnarketarako gonbita egiten dio ikusleari. Eibarko Coliseo antzokian aurkeztuko da gaur, Tanttaka Teatroaren eskutik.

Testua IRATI ALVAREZ

Tanttaka Teatroak Desobedienteak 18/98 antzezlanak Eibarrera ekarriko du gaur, urtarrilaren 16an, 19:00etan, Coliseo antzokira. Fernando Bernuesek eta Mireia Gabilondok zuzendutako lanak desobedientzia zibila du ardatz, demokraziarekin bateragarria den tresna gisa ez ezik, hura babesteko ezinbesteko erreminta gisa ere ulertuta. 18/98 sumarioa abiapuntu hartuta, antzezlanak memoria historikoa eta gaur egungo gizartearen erronkak jartzen ditu oholtzaren gainean. Eibarko emanaldia dela eta, Mireia Gabilondorekin hitz egin dugu, proiektuaren sorreraz, desobedientzia zibilaren esanahiaz eta antzezlanak ikusleengan piztu nahi duen hausnarketaz.

Zerk eraman zaitu Desobedienteak 18/98 antzezlanak zuzentzera, eta zergatik iruditu zaizu garrantzitsua proiektu honetan parte hartzea?

Aspalditik landu nahi genuen gaia zen. Fernando Bernues hasi zen lehenik gaiari bueltak ematen, nola heldu eta zer egin pentsatzen. Joxemi Zumalabe Fundazioarekin elkartu zen —lagun batzuk ditugu han—, eta haiekin hitz egin ondoren ikuskizun bat sortzeko beharra sentitu genuen. Hurrengo pausoa Maria Goirizelaiari testua eskatzeko erabakia izan zen, eta testua esku artean izan genuenean, Fernandok eta biok elkarrekin zuzen-



tzea erabaki genuen. Bien artean egin dugu, gainera, Goirizelaiaren testuaren moldaketa. Desobedientzia zibilaren gaia oso garrantzitsua iruditzen zitzaigun, ezezaguna delako askorentzat. Eta gauza bera gertatzen da 18/98 sumarioarekin: jende askok ez dauka argi zer izan zen eta nola garatu zen. Ikuskizunean neska gazte bat da protagonista, unibertsitatean doktore-tesia defendatzen ari dena. Bere tesiaren bidez, historian zehar desobedientzia zibilari esker lortu diren hainbat lorpen azalduko dira: Gandhiren eta Rosa Parksen kasuak, Martin Luther King, intsumisioa... hainbat adibide agertzen dira. Horrez gain, 18/98 auzia eta Joxemi Zumalaberen kasua ere lantzen dira.

ASTEROIDEIAK PROIEKTUA

Zientzia dibulgazioa euskaraz

FORJARI KOSMIKOA: PIANO BAT, KATASTROFE ULTRAMOREA ETA ARESTI

Forjari eta astronomo baten lanak konparatuko bagenitu, hain desberdinak ez direla esan ahalko genuke. Tailerretan gertatzen denak Eguzkiaren atzean gertatzen den beste fisika du: indarrak, beroa, marruskadurak, bibrazioak, magnetismoa, soinua, energia... eta askotan urrun dauden bi mundu moduan ikusten ditugu, eta badute amankomunean gauza nahikotxo.

Adibidez, Eibarko tailer bateko behargin ohi batek ez du metal baten tenperatura jakiteko termometro-rik behar, astronomo batek Eguzkiaren tenperatura neurtzeko behar ez duen moduan. Lehenengo kasuan, tenple, soldadura, urtze edota forjaketa moduko prozesuak kontrolatzeko tenperatura jakitea ezinbestekoa da, eta, bigarrenean, fusio nuklearren erreakzioak, izarren eboluzioa edota argia nondik datorren jakiteko.

Beharginaren artisau-jakinduria horren atzean, astrofisikari baten fisika berdina erabiltzen da, eta hor dago bi munduen arteko lotura. Funtsean, hizkuntza berri bat dute komunean: **suaren hizkuntza**.




KOLOREA ETA TENPERATURA

Inguratzen gaituen objektu orok argia igortzen du: kafe-tazak, jantzita daramazun kamisetak, atzamarrean daramazun eraztunak eta baita zuk zeuk ere. Hala ere, argi hori gure begiendako ikusezina da askotan, baina

hor dago. Kontua da, giro tenperaturan, objektuek energia baxuko argia emititzen dutela, hau da, gure begiak sentsibleak ez diren argia bidaltzen dute; eta argi horri, argi infragorri deritzo. Neguan topera jartzen den estufaren kasuan moduan, estufak argi infragorria bidaltzen du gela osora eta gure azaleko molekulak mugiarazten ditu, eta horrek berotzen gaitu. Baina gure begiek ezin dute argi hori ikusi.

Hala ere, pentsa barbakoa bateko brasen. Hasieran, berotzen hasten garenean, ez dugu kolorerik ikusten, baina momentu batean hasieran ez zituen koloreetan disdiratzen hasten da, eta gai gara begibistaz antzemateko. Zenbat eta gehiago berotu, orduan eta kolore aldaketa nabariagoa: hasieran gorri iluna, gero laranja, geroago zuria eta, asko berotuz gero, urdinagoa den argi bat.



1. irudia Erradiazio termikoaren espektrua: objektu batek zenbat argi igortzen duen kolore (uhin-luzera) bakoitzean, objektuaren tenperaturaren arabera. 380 nm-tik behera argi ultramore dago (ikusezina), 380-780 nm arteko uhin-luzeratan gure begiak sentsibleak diren tartea (argi ikusgaia) eta 780 nm gora argi infragorria (ikusezina).

Objektu denek, tenperatura zehatz bat izanagatik, energia igortzen dute espektratu oso zabala batean, hau da, argia emititzen dute kolore guztietan (ikus 1. irudiko marra beltzak): argi infragorritik (energia baxuko argi ikusezina) argi ultramoreetara (energia altuko

argi ikusezina), eta honi deritzogu erradiazio termikoa.

Espektro horren abantailetakoa bat erdibidean gure begiek antzematen dezaketen espektroa aurkitzen dela da, espektro ikusgaia, alegia. Orduan, gai gara energia baxuetatik altuetara doan objektu baten erdibideko aldaketa begibistaz antzemateko. Izan ere, kolore gorriketatik (tenperatura baxua) kolore urdinetara (tenperatura altua) pasatzean, gure begiak funtzionatzen hasten dira eta kolore aldaketa nabaritzen da.

Modu bisualena piano batean pentsatzea da: notarik grabeenak tenperatura baxuenekoak dira, gorriak, energia gutxieneakoak; eta, notarik agudoenak, tenperatura altuenak dira, urdinenak. Material bat berotzen hastean nota grabeak jotzen hasten da, baina gehiago berotu ahala grabe eta agudoen arteko notak entzuten hasten gara, gure belarriek hobeto antzematen dituztenak. Argiarekin berdintsu, begiak hobeto ikusten ditu erdibideko koloreak.

Horrela, lehengo lantegietan arotzek bazekiten tenperaturaren arabera 'gorri gerezi (edo gorri ilun)', 'gorri bizi' eta 'tenple-zurixka' koloreak bereizten, baina ez zekiten erradiazio termikoaren espektroa neurtzen zebiltzala.

Baina, forjarien lan horrek mezu argi bat bidaltzen digu: zerbaiten tenperatura neurtzeko kolorea begiratzearekin nahikoa da. Hala ere, XIX. mendeko fisikarientzat sekulako buruhaustea bilakatu zen: Zergatik aldatzen da kolorea beroaren arabera? Nolatan banatu objektu baten argiaren distribuzioa kolore guztien artean?

Horrela, beroak kolorea zuen ideiak, iraultza zientifiko baten txinparta piztu zuen: fisika kuantikoaren sorrera.

PLANCK ETA KUANTIKAREN SORRERA

Mendeetan arotzek suaren hizkuntza ulertzen zutela uste zuten, galdera asko egin gabe, baina fisikariak goian plazaratutako galderak egiten hasi ziren. Hala ere, garaiko ekuazioak gai ziren zehazteko tenperatura baxuetan zenbat argi igortzen zuen objektu batek, baina tenperatura altuagoetan ezin zen argi kantitate hori neurtu.

Zer zioen bada garaiko Fisikak? Gero eta urdinagoa (beroagoa, alegia) izan objektu bat, orduan eta energia gehiago emititzen du, limiterik gabe, inifituta. Hala ere, horrek absurdu batera eramaten zuen, natura ez baitzen horrela konportatzen: bonbila, izar edota metal berotu batek disdira limite bat zuten, forma leunago eta orekatu batekin, 1. irudian ikusi ditugun espektroetan moduan. Absurdu horri katastrofe ultramore deitu zitzaion, Max Planck fisikari alemana agertu zen arte.

Planckek 1. irudiko espektro horiek nolabait azaldu nahi zituen eta argiaren koloreen distribuzioa nolabait ulertu. Horretarako garairako pentsaezina zen hipotesi bat plazaratu zuen: argia ez da fluxu konstante moduan helarazten, hau da, ez da erreka bat moduan jarraituki doan zerbait. Ondorioztatu zuen argia euri-tanten moduan igortzen diren paketeak zirela. Hau da, nahiz eta euria zerbait jarraitua iruditu, euri-tanta diskretuz osatzen da, baina hain doa bizkor, jarraitu gisa ikusten dugula.

Hori dela eta, argia banaezina zen pakete txikietan emititzen zela ondorioztatu zuen, kuantuetan, geroago fotoi moduan ezagutu zena. Eta hipotesi horrekin, objektu batek kolore guztietan igortzen zuen espektroa doitzea lortu zuen, tenperatura guztietarako eta oso modu zehatzean.

Gaur egun, espektro horiek azaltzen dituen Fisikari **gorputz beltzaren erradiazioa** deritza, eta baliogarria da bonbila, Eguzki edota metal gori baten portaera definitzeko.



2. irudia Supernoba baten leherketa baten irudikapena. Supernobak masa handiko izarren bizitzaren amaieran gertatzen dira, haien nukleoak kolapsatzen direnean. Leherketa horretan energia eta materia kantitate izugarriak askatzen dira, eta unibertsoan elementu astunak sortzen dira, hala nola burdina eta urrea. Prozesu horrek izar eta planeta berrien sorrera elikatzen du.

INGUDETIK KOSMOSERA

Unibertsoa bera tailer handi bat dela esan genezake: materia urtu, hoztu, solidotu eta berriz pizten da, behin eta berriz, <<Dinbili, danba! gau eta goiza, su eta keen artean>> Arestiren Forjarien kantan moduan. Baina, izar guztiek kolore bera dute? Izar baten eboluzioak badu kolorearekin zerikusirik? Segi irakurtzen Aste-roideiak.eus webgunean!

“Txanpon baten truke” ikuskizunerako gonbidapenak banatuko dira astelehenean

...eta kitto! Euskara Elkarteak familientzat ikuskizuna antolatu du datorren barixakurako, urtarrilak 23. Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoak etorriko dira Coliseora “Txanpon baten truke” ikuskizunarekin. 18:00etan hasiko da eta ez da sarrerarik ordaindu behar, baina gonbidapenak ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu 11) jasoko dira astelehenetik aurrera (urtarrilak 19). Informazio gehiagorako 943200918 telefonora deitu daiteke.



Herriko 18 tabernak eman dute izena X. Gilda Lehiaketan

Aurten data aldaketarekin dator Gilda Lehiaketa. Azkeneko urteetan abenduan egin ohi izena, aurten otsailean egingo da X. edizioa, zehazki otsailaren 4, 5 eta 6an. Horrez gain, azken urteotako parte-hartzerik altuenarekin dator aurtengoa, herriko 18 tabernak eman baitute izena. Epaimahaia hiru egun horietan pasatuko da parte hartuko duten tabernetatik gilda baloratzera eta bi sari emango ditu, gilda berritzaileenari bata eta gilda tradizionalari bestea. Horrez gain, herritarrek ere izango dute gildak bozkatzeko aukera tabernetan egongo diren bozketa-kutxen bidez, eta bozketan parte hartzen dutenen artean bertoko produktuekin egindako otarra zozketatuko da.

Uxue Alberdi izango da datorren astean “Harixa Emoten” saioan

Urteko lehenengo saioa izango du datorren astean “Idazlearekin Harixa Emoten” irakurle-taldeak. Uxue Alberdi hurbilduko da taldera, bertako kideekin batera “Hetero” liburuari mamia ateratzeko. Idazle elgoibartarra 19:00etatik aurrera izango da Portaleko batzartokian.



Barixakuak Jolasian Txaltxa Zelain izango da gaur arratsaldean

Bueltan dira Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak. Gaur, urtarrilak 16, egingo dio urtarrileko egitarauari Txaltxa Zelain. 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak antolatuko ditu ...eta kitto! Euskara

Elkarteak 17:00etan hasita 18:00ak arte, doan. Hurrengo astean, urtarrilak 23, Torrequako parkeak hartuko ditu jolasok eta hileko azkeneko barixakukoak, berriz, urtarrilak 30, Urkizukoak.



LEIRE NARBAIZA

Dekadentzia

Eibar gainbeheran dago, gordin eta zuzen diñot. Ez da kontu barrixa, baiña azken boladan dekadentzia sensaziñua gero eta haundixagua da, eta ez da nere kontua bakarrik, inguruko jendiak be antzera ikusten dau gure herrixaren egoeria. Siñisten ez badozue, egin bueltatxo bat zentrotik kanpora, baiña ez oso urrin be. Denda mordua itxitta, lokal hutsak, hormak ustezko grafitiz beteta, abandonatutako orubeak sasiz eta hondakinez jositta, lagatako eraikinak alperrik galtzen, txakur kakak lurrian... utzikerixia edonun. Matxarixa, Txonta, Urkusua, Mekola, Arrate bidia, Otaola etorbidia... Eibarko sarrera-urteerak, begi bistakuak.

Abandonu horren adibide garbixa zaborrontzixak dira: gainezka asko, kanpuan lagatako poltsak inguruan... zikiña ez eze, higoingarrixa be bada. Esango destazue jendiaren kulpia dala, eta izan bada. Baiña jendiari lagundu egin bihar jako gauzak ondo egitten: ganorazko ontzixak jarritta, zabaltzeko malabarismuak bihar ez dittuenak, mobilidade murriztua dakeneri kontainer egokixak ipinitta, hondatutakuak konponduta (Urkusuan uztailetik dago papel edukiontzi bat apurtuta eta anulauta, esaterako). Jendia gu gara, eta zikiñak gara, zabor-lekuak ikustia baiño ez dago. Baiña aittatu dodan guztia konpontzeko bai mankomunidadiak, bai udalak zeozer gehixago egin biharko leukie, neurrixak hartu zikinkerixia desagertzeko, eta herrixari itxura egokixagua eta goxuagua, bizigarrixagua egitteko.

Hori gitxi balitza lez, eraikin industrial abandonatuta ugari dittugu, balixo historiko eta arkitektonikua dakezenak be bai. Hórretako batzuk grafiti ganorabakoz “dekoratuta”, hakakorik biharko balebe moduan! Gure ondaria birrintze bidian dago holan. Baiña iñori ez detsa ardura, itxuria.

Laster sei urte etorriko dira Zaldibarko zabortegixa amildu zana gure mugetan, izan deigun akorduan. Inguruak zaborrak hartu zittuan, baitta bihargin bi be. Akordau gaittezen Zaldibarkuaz, zabor eta zikin olatuak Eibar estali ez deixan, gainbehera gelditu deigun, dekadentziak ezer onik ez dakar eta.

“Akordau gaittezen Zaldibarkuaz, zabor eta zikin olatuak Eibar estali ez deixan, gainbehera gelditu deigun, dekadentziak ezer onik ez dakar eta”



Zer egingo zenuke Eibarren 62 milioi euro edukiko bazenitu?



Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Eibarko PSE-EE eta EAJ-PNVk osatzen duten Udal Gobernu Taldeak 62,1 milioi euroko aurrekontua onartu du 2026. urterako. Arduradun politikoek gizarte-inbertsioa, herriaren berroneratzea eta zerbitzu publikoen kalitatea indartzen dituen aurrekontuak bezala aurkeztu dituzte. EH Bilduk eta Podemosek ez dituzte aurrekontuak babestu. Eta herritarrek? Kalera irten gara euren iritzia jasotzera.

Iazkoak baino sei milioi euro gehiago izango ditu 2026. urteko Udal aurrekontuak. “Nondik dator igoera hori?”, galdetu digu kalean eibartar batek. Galdera eta zalantza gehiago aurkitu ditugu herrian, baita kritikak eta adostasunak ere, eta momentu batez alkatearen azalean jarri eta Eibarren zer egingo zuten ere galdetu diegu herritarrei. “Uf, lasaiago bizi naiz orain, nahiago nuke bere lekuan ez egon”, esan digu batek. Beste batek, oster, ondo hartuko luke kargua: “Hasteko, demaseko festa egingo nuke!”.

Eibar hiri atsegina da bizitzeko? Galdera horri erantzun diete lehenik herritarrek. Herria asko aldatu ela esan digu batek: “Lehen bizitzeko atseginagoa zen”. Beste batek hitz gogorragoak ditu: “Gauza asko dago konpontzeko, ‘zisko’ eginda dagoelako”.

Denak ez dira iritzi berekoak eta badira Eibar bizitzeko hiri atsegina dela pentsatzen dutenak ere. “Batzuek zatarrak dela esan arren, demaseko giroa duen herria da”, gazte baten ustez. “Ni gustura bizi naiz”, esan digu beste batek. Eta badaude, erdibidean geratzen direnak ere: “Nahiko eroso da, baina ez da guztiz atsegina bizitzeko”.

Askorentzat berdegune eta espazio irekien faltak egiten du Eibar bizitzeko toki ez atsegina. “Ia ez dago berdegunerik, umeentzako toki es-taliak ere urriak dira eta egiten den ia guztia etxeak dira”, pentsatzen du elkarrizketatu batek.

Antzeko iritzia eman digu beste batek, eta zera gehitzen du: “Orografiak asko baldintzatzen du eta berez, gauza batzuk ezin direlako aldatu, Eibar ez da bizitzeko oso atsegina. Baina uste dut oso gutxi zaintzen dela: par-ke gehiago egotea, toki lasaiak, zuhaitzak... Sentsibiltate pixka bat eduki behar da, bestela toki gogorra da bizitzeko”.

Aldaketak non?

Ikusten denez, gehienek uste dute herriak hobekuntzak behar dituela, baina zertan inbertituko lukete zehazki? Hori zehaztea zailagoa da eta batzuek ez digute jakin esaten zeregingo zuten (ulertu behar da ere hotzean harrapatu ditugula), baina badago iritzi argia duen jendea ere. “Ume txikientzako gauza gehiago eskainiko nituzke. Ume eta gazteentzat gauza gutxi dago”, eibartar baten iritzi. “Asteburuetan zein aukera dituzte gazteek?”, galdetzen du beste batek.

Zentzu horretan, baina adin guztietako herritarrei zabalduz, kultur eskaintza handitzea eskatzen dute batzuek. Beste batzuek, oster, eskaintza hori bada-goela erantzun digute eta zentzu horretan ez dagoela inbertsio handirik egin beharrik. “Baina pena ematen dit asteburuetan liburutegia ixtea, azterketa sasoia ez bada”, azpimarratu du batek.

Batek baino gehiagok esan digu berdeguneetan eta aisialdirako espazioetan inbertsioak egin beharko liratekeela, eta mendira begira jarri dira batzuk: “Kaleak ondo daude, agian garbiketa gehiago behar dute, baina mendiak gehiago zainduko nituzke, zuhaitz gutxi dago-eta”.

Arlo ekonomikoari ere heldu dio beste batek: “Komitertzioan zerbait egin behar da. Asko ixten ari dira”.

Entzuten dira herritarren nahiak?

Politikariak dira herritarren ordezkariak aginte organoetan eta herriak euren esku lagatzen du erabakiak hartzeko ardura. Noski, akordio sozialak bermatzen du eurek herriaren eta herritarren interesen alde egin beharko dutela. Zentzu horretan, eibartarrek euren nahiak entzuten direla uste dute? Denetariko iritziak jaso ditugu. “Ez”, erantzuten du batek baino gehiagok argi eta garbi. Beste batzuek ez dute argi: “Ez dakit, idearik ere ez”. “Zalantzak ditut”, diosku beste batek, “gehiago entzun beharko liokete herriari”.

Beste elkarrizketatu batek ere esan digu ez dakiela politikariek herritarrak entzuten dituzten, “baina kasu gutxi egiten dute. Etxeak egin eta egiten dituzte, eta beharrezkoak dira, baina gauza gehiago behar dira Eibarren”.

Elkarrizketatu gazteenak, oster, iritzi baikorragoa du: “Uste dut orain lehen baino gehiago entzuten direla herritarren nahiak”.



Kalera irten gara herritarrei Eibarren zein inbertsio egingo luketen galdetzera, besteak beste



Herritarrek berdegune gehiago eskatzen dituzte eta ixten ari diren komertzioekin kezka ere agertu du baten batek.

“Bessie Smithen kantatzeko modua hain zen pertsonala, besteok egin dezakegun gauza bakarra mirestea dela”

ITZIAR YAGUE • Musikaria



Itziar Yague abeslariak eta Paul San Martin pianistak kontzertua emango dute urtarrilaren 25ean, domeka, 19:00etan, Coliseo antzokian. Bessie Smith bluesaren mitoa gogoratzeko ikuskizuna izango da, pianoaren eta ahotsaren bitartez.

Testua **EKHI BELAR**

Yague eta San Martin 2021ean hasi ziren elkarrekin eta, biak ere Bessie Smithen miresle izanik, artista omentzeko ikuskizuna prestatu zuten, 20ko hamarkadako ikuskizunen eta grabazio originalen espiritua birsortzen duen formatu intimoan. Sarreraren prezioa 10 eurokoa izango da (7 euro ‘Coliseoaren laguna’ txartela dutenentzat).

Nola heltzen diozu Eibarren izango duzuen kontzertuari?

Ilusio handia egiten dit lehen aldiz Eibarren eta Coliseo bezalako esparru batean aritzeak, non badakidan artista handi asko eta asko aritu direla. Aurreko urteetan baino askoz ere lasaiago bizi nahi dut 2026. urtea, eskakizun pertsonal eta musikal handikoak izan baitira; kontzertu gutxiago emango ditut, beraz, bakoitza eta bereziki hau, urteko lehena, oso bereziak izango dira. Nola sortu zen Paul San Martin eta zu elkartzeko ideia? ‘Delicious’ diskoaren harira 2021eko uda pandemikoan egin nituen hiru kontzertuak nirekin jotzeko deitu nion Pauli. 2022. urte osoan zehar elkarrekin biratu genuen eta uda horretan bertan Madrilera etorri zen nire bigarren diskoa grabatzera, ‘Girl like me’, 2023. urtean

penintsulako hainbat puntutan aurkeztu genuena. Eta guztiaren erdian, Bessie-ren proiektua atera dugu aurrera, duela urte askotako nire ametsa. Paulengandik talentu, inspirazio eta ikasketa asko aurkitu ditut; eta hori gutxi balitz, adiskidetasun zintzoa dugu. Oso eskertuta sentitzen naiz. Berarekin lan egin duen edonork gauza bera esango dizu: benetako plazerra da lankide izatea.

Zuen oraingo proposamena Bessie Smithi egiten diozuen omenaldian oinarritzen da. Zer izan da zuretzat Bessie eta zer ikasi duzue haren kantatzeko modutik?

Gogoan dut 2018an pentsatu izana: “Dagoeneko Bessie inoiz izan zena baino zaharragoa naiz, eta oraindik ez dut nire musika propioa egin. Bada garaia”. Askok hunkitu naute haren figurak eta kantuek, eta konfiantza eta ausardia eman didate nire proiektua aurrera ateratzeko. Bere kantatzeko modua hain zen pertsonala, beste kantari batzuek egin dezakegun gauza bakarra mirestea dela: bere estiloa imitatzina da.

“Sugar in my bowl. A tribute to Bessie Smith” lanak zuzeneko grabaketaren freskotasuna du. Zergatik erabaki zenuten horrela grabatzea eta zer ekarpen egiten dio horrek musikaren egiazkotasunari?

Paul eta biok ziur gaude musika hau egiteko ez dela nahikoa musika jotzea: espazio askoz sakonago eta



Paul San Martín piano-jolearekin batera etorriko da Coliseora Itziar Yague abeslaria.

intimoago batetik ulertu behar da, eta, gainera, interpretatzean gai bakoitzaren asmoa errespetatu behar da. Naturalena bere garaian sortu zen bezala jotzea eta grabatzea dela uste dugu, apaingarririk eta distrakzio-rik gabe. Arriskutsuagoa da, noski, baina baita askoz bizigarriagoa ere. Besterik gabe, gehiago gustatzen zaigu horrela.

Nola orekatzen duzue jatorrizko grabazio historikoak errespetatzearen eta aldi berean zuen ahots eta pianoaren izaera pertsonala txertatzearen arteko oreka?

Oso grabazio gutxi aurkituko dituzu, 20ko hamarkadakoak, pianorik jotzen ez dutenak, nahiz eta gero gerraostean ezagun egin ziren beste blues estilo batzuek instrumentu hori bigarren mailan utzi zuten. Guri interesatzen zitzaigun gure diskoak Bessieri omenaldia egitea, baina baita estiloari eta garaia ere, bioi gustatzen baitzaigu. Artifizio oro ezabatu nahi izan genuen eta mamiarekin geratu, eta uste dut lortu dugula.

**Zer prestatu duzue bereziki Eibarko Musika Kluba-
rentzat?**

Ikuskizun hau egiten dugunean ez daramagu ordena

ezarririk: gaiak gogoaren arabera jotzen ditugu edo publikoak erantzuten duela ikusten dugu. Jakina, musika-estilo hau oso egokia da eszenaratze dinamiko honetarako; horrela, kontzertu bakoitza aurrekoaren guztiz desberdina da. Errepertorioan, duela ehun eta piku urteko abestiak aurkituko dituzte bertaratzen direnek, freskoak eta berriak, hain zuzen ere, interpretatzeko dugun moduagatik, ahalik eta modu natural eta espontaneoenean.

Eibar ez da hiri erraldoia, baina musikarekin eta kulturarekin lotura handia du; zer gustatzen zaie horrelako hiri ertainetako eszenatokiei eta publikoari?

Kontziente naiz zuzeneko musikarako zaletasun handia dagoen lekuetan publikoa zorrotza dela. Oso ondo iruditzen zait, ni ere hala naizelako entzule gisa kontzertu batera joaten naizenean. Hori bai, zenbat eta gehiago eskatu publikoak, orduan eta eskertsuago eta eskuzabalago da gu bezalako artistekin, emanaldi bakoitzean geure burua entregatzen dugunokin. Nire esperientziaren arabera, hobekien pasatzen dugun lekuak eta kontzertuak izan ohi dira.



Deporrek mendi-irteeren egutegia jakitera eman du

E.B. Urkora egin zuten ibilaldiarekin urteko lehen saioa urteko lehen egunean egin bazuten ere, Eibarko Klub Deportiboko Mendi Batzordeak 2026ko mendi-irteeren berri eman du.

Guztira 22 txango egingo dituzte, 16 egun bakarrekoak eta sei bi egun edo gehiagokoak, eta mota eta maila guztietako mendizaleentzako ibilaldiak eskaintzen saiatu dira.

Azken urteotan bezala, Morkaiko mendi-taldearekin zenbait mendi-ibilaldi egingo dituzte, eta Garagunerekin informazioaren zabalkundean kolaboratuko dute.

‘Hartzaren urratsak’ eta ‘Trabukoren bidea’

Iaz ‘Herri txikiak’ egitasmoak izandako arrakasta ikusita, 2026an ere “irigarritasun izpiritua gorde nahi izan dugu”, euren diotenez, eta gaia aldatuz, ‘Hartzaren urratsak’ eta ‘Trabukoren ibilbidea’ izeneko zeharkaldiak jarriko dituzte martxan.

‘Hartzaren urratsak’ delakoak bost etapa izango ditu eta Deba Garaian zehar egingo da. Horren bitartez, hartzen bizilekuak ezagutzeko aukera egongo da, “zeinetan aspaldi baten gure arbasoek arpe, haitzulo eta landa zabalak partekatu baitzituzten beraiekin”, diotenez. Ibilbidea Angiozarretik igaroko da, “non Gipuzkoako azken hartza ehiztatu zuten 1867an”. Gainera, Arrikruz eta Leze Txiki kobazuloetara hurbiltzeko bideak ezagutuko dituzte, “non leize-hartzen aztarna ugari aurkitu izan diren”.

Joan den zapatuan egin zuten zeharkaldiaren lehen etapa, Bergaratik Udalara, eta bigarrena hilaren 24an

egingo dute, Arrasatetik Leintz Gatzagara, bidean Atxorrotz (736 m) igota.

‘Trabukoren bidea’ zeharkaldiarekin Nafarroara joko dute XVII. mendean toki haietan jardun zuten gaizkile taldea gogoratzeko, kanten bidez Mikel Laboak ezagutarazi zituen bertso haiek oroitzuz: “Goizuetan bada gizon bat deritzo Trabuko”. Horrela, Deporrek mendizaleak Goizueta, Leitza, Larunbe eta Latasa inguruan ibiliko dira Munagirre, Mendibil, Ireber eta Erga bezalako mendiak gaindituz.

Zeharkaldi horiez gain, zenbait zapatutan irteera bitxiak ere egingo dituzte. Hala nola, haitzulo batera edo urteari amaiera emateko irteera (sagardotegian egindako bazkariarekin errematatuz).

Egun batetik gora

Esan bezala, urteko sei txangok bi egun edo gehiagoko iraupena izango dute. Aste Santuan, adibidez, Catalunya iparraldera joko dute bost egunetan ibilaldiak egiteko, apirilaren 2tik 6ra.

Urriko zubian, bestalde, Redes-ko erreserba naturalera joko dute, hiru eguneko irteera egiteko.

Hiru asteburutan Pirinioetara joango dira. Ekainean, Gabardito – Arlet – Ozako Oihana egingo dute; uztailan, Punda de la Faixa – Gran Facha (3.005 m) – Wallon aterpetxea; eta irailean, Gorreta d’ Os Gabachos (2.268 m).

Mendiko eskiak ere izango du tokia Deporren mendi-irteeren egutegian, eta martxoan bi eguneko irteera egingo dute.



Txanponaren bi aldeak SD Eibar-en talde nagusientzat

E.B. Denboraldi honetan SD Eibar-i albiste onak ematen dizkion talde bakarra emakumezkoena izaten ari da. Taldea sailkapenaren 10. postuan dago, jaitsiera postuetatik 11 puntura.

Urteko lehen partiduan, emakumezkoek Murtziara jo zuten Alhamaren aurka aritzeko eta hiru puntuekin itzuli ziren etxera, Carmen Alvarezek penalti puntutik lortutako golarekin 0-1 irabazita.

Asteburu honetan Ipuruan lehiatuko dira, Madrid CFF-ren aurka, bihar, 18:30ean.

Gizonezkoen taldeak, ostera, oso gertu ditu jaitsiera postuak (puntu bakarrera) eta puntuak lortzeko premia du. Hurrengo jardunaldian Granadari egingo dio bisita (astelehenean, 20:30ean) eta garrantzitsua izango litzateke emaitza positiboa lortzea, atzetik bi puntura baitu talde andaluziarra.

Emozio gehiago futbol zaletuaren ligan

Gabonetako atsedenaldiaren osteko lehen jardunaldiak emozio gehiago eman dio futbol zaletuaren ligari. Hiru talde daude tituluaren lehian eta ezustekoak eman dira asteburuan.

Malape liderrak Adahi Etxegi zuen aurkari eta 2-3 erori zen. Bigarren postuan zegoen Maremek 4-1 galdu zuen Bergara Pneumatikoaren kontra, eta aurea hartu dio Xaniak Baserriri 6-1 irabazita.

Liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan, Malapek oraindik partidurik irabazi ez duen Baserri izango du arerio eta Xaniak Garajes Garciaren aurka jokatu du. Maremek, ostera, atsedena hartuko du.

SAILKAPENA

1. Malape Taberna, 30 puntu
2. Xania Taberna, 27 puntu
3. Bar Marem, 26 puntu
4. Bergara Pneumatikoak, 20 puntu
5. Adahi Etxegi, 16 puntu
6. Kalaka Buenos Aires, 15 puntu
7. Garajes Garcia, 13 puntu
8. Limpiezas Rueda, 6 puntu
9. Baserri, 0 puntu

Juan Mugerza Krosa jokatu da domekan

E.B. Juan Mugerza Nazioarteko Krosak 81. edizioa izango du aurtengoa eta, beste behin, proba honetako munduko korrikalari onenak elkartuko dira Elgoibarren, domekan. Mintxeta izango da bertan lehiatuko diren proben hasiera eta amaiera, eta goizean goizetik kategoria ezberdinetako probak jasoko ditu.

Puntu gorena eguerdi aldera iritsiko da, emakumezkoen lasterketa nagusia 12:35ean hasiko baita eta

gizonezkoena 13:15ean. Emakumezkoen lasterketaren ibilbidea 7.621m-koa izango da eta gizonezkoena 9.707m-koa.

Maila goreneko parte-hartzaileek hartuko dute parte Elgoibarko lasterketan, eta zortzi hamarkadako palmaresari distira gehiago emango diote. Azken bi urteetan errepikatu egin da garaileen izena, Beatrice Chebet keniarra eta Berihu Aregawi etiopiarra gailendu baitira Mintxetako helmugan.





Denboraldiko bigarren garaipena Urbateko gizonentzat

E.B. Ez dihardu denboraldi erraza izaten waterpoloko 2. Nazionalean jokatzeko duen Urvat Urkotronik taldearentzat. Asko kostatu zitzaion denboraldiko lehen garaipena lortzea (orain dela bi jardunaldi eskuratu zuen) eta asteburu honetan heldu da bigarrena. Eibartarrek Colegio Brains taldea hartu zuten zapatuan, urtarrilak 10, Paco Yoldi kiroldegian, eta 12-9 irabazi zuten.



Sonia Mendy eta Ander Svensson bikain aritu ziren Anoetako belodromoan

E.B. Joan den zapatuan, Gipuzkoako eta Nafarroako 23 urtez azpiko bakarkako txapelketa jokatu zen Anoetako belodromoan. Bertan, Eibarko Klub Deportiboko 14 atleta aritu ziren eta zenbaitek marka politak lortu zituzten.

Azpimarratzekoak dira Sonia Mendyren hirugarren postua pisu jaurtiketan eta Ander Svenssonen 4. postua altuera jauzian. Gainera, June Azkaratek eta Farah Chajarnek aurretik zituzten markak hobetu zituzten.



Asteburu borobila izan da Eibar Rugby Taldearentzat

E.B. Bata bestearen atzetik jokatu zuten zapatuan Eibar Rugby Taldearen bi talde nagusiek. Emakumezkoentzat mailari eusteko ligaxkaren lehen jardunaldia zegoen jokoa eta oso ondo erantzun zuten, 20-13 gailendu zitzaielako Universitario Bilbaori.

Euskal Ligako gizonen taldeak ere garaipena lortu zuen, 43-5 La Unicaren aurka, eta lidergoa sendotu du horrela.

Emakumeen taldeak asteburu honetan jokatu du berriz, domekan, 12:00etan, Pinguinosen aurka; eta gizonen datarren astera arte itxaron beharko dute etxean Mutriku jasotzeko.



Deporreko hiru taldek hartuko dute parte Gipuzkoako Taldekako Xake Txapelketan

E.B. Gipuzkoako Taldekako Xake Txapelketa hasi zen joan den zapatuan eta aurten, iaz bezala, Eibarko Klub Deportivoak hiru talde aurkeztu ditu lehiara.

Maila gorenean diharduen taldeak 3-1 galdu zuen Agustin de Leiza A-ren aurka, eta hirugarren mailako taldeek elkarren aurka jokatu zuten: Eibar B 4-0 Eibar C.



Eibarko Txirrindulari Elkartek mendeurrena ospatuko du aurten

E.B. Eibarko Txirrindulari Elkartek 2025eko Ohiko Batzar Nagusia egin zuen zapatuan, Portalean. Ekitaldian, Angel Lopez presidenteak egin zuen agurra eta 2025eko balantzea egin zuen. Bazkideek kontuak onartu zituzten eta baita 2026ra begira prestatutako aurrekontua ere.

Onarpen horrekin ekingo diote urte berezi honi, elkartearen mendeurrena ospatuko baita 2026an. Horrela, urtero prestatzen dituzten ekintzen artean, data berria ospatzeko ekitaldia egingo dute ekainaren 10ean. Bestalde, hau izango da 2026ko egitaraua: otsailak 22, XVII. Udaberri kontzertua; martxoak 1, XLVIII. Udaberri proba (juniorra); apirilak 19, VIII. Eibar Hiria Sari Nagusia (emakumezkoen UCI); apirilak 26, IX. Eibarko Txirrindulari Elkartea Saria (kadetea); maiatzak 3, LV. Balentziaga Oroigarria (23 urtez azpiko eliteak); ekainak 10, Mendeurrenaren aurkezpen ekitaldia; ekainak 14, XC. San Juan

Sari Nagusia (jubenilak); irailak 27, XXXI. Pedal Eguna; azaroak 21, XXII. Txistorra Eguna.

Lizentzia, arropak eta zozketa

Zapatuko ekitaldian beste gai batzuk landu zituzten. Batetik, bazkideei jakinarazi zitzaizen zikloturisten lizentziak berritzen hasiak zirela eta nahi zuenak aurrez aurre tramitatu ahal izango zuela, klubaren lokalean (Pagaegi kalea, 3), eguaztenetan 19:00etatik 20:00etara.

Halaber, txirrindularientzako arroparen diseinua aurkeztu zen: udako eta neguko maillota eta kuletotea, eta baita udako txalekoa ere. Klubaren mendeurrena ospatzeko bereziki atera dute arropa, eta erosi nahi duen ororen eskura dago, neurri desberdinekin, klubaren lokalean, eguaztenetan 19:00etatik 20:00etara.

Ekitaldian zehar zozketa ere egin zen, eta Manu Martinez 'Ganda' izan zen saritua.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

1. Maila

EIBAR - Madrid CFF (bihar, 18:30)

Emakumezkoen 2. Maila

Granada - EIBAR (astelehenean, 20:30)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - SD Logroñes (bihar, 15:30)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Burgos (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Real Sociedad C - EIBAR C (etzi, 16:45)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

URKI - Urola (bihar, 15:30)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

EIBARTARRAK - Zestoa (bihar, 18:00)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

EIBAR B - Indartsu (bihar, 18:00)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

Antiguoko - URKI (bihar, 15:30)

FUTBOL-ZALETUA

- Xania Taberna - G. Garcia (bihar, 09:00)
- Bergara Pn. - L. Rueda (bihar, 10:30)
- Kalaka Bs. As. - Adahi Etxegi (etzi, 09:00)
- Malape - Baserri (etzi, 10:30)
- Atsedena: Bar Maren

ESKUBALOA

Zilarrezko Maila (em)

Santander - E. ESKUBALOA (bihar, 18:30)

1. Maila Nazionala (gi)

Barakaldo - EIBAR ESKUBALOA (etzi, 19:45)

Seniorren Euskadiko Liga (gi)

E. ESKUBALOA B - Zarautz (etzi, 12:45)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

Ordizia - EIBAR ESKUBALOA B (bihar, 17:10)

SASKIBALOA

Gipuzkoako 1. Maila (gi)

ARTE. JUANTXO - Mundarro (bihar, 14:30)

Gipuzkoako 2. Maila (em)

Luberri - EIBAR SASKI (bihar, 18:00)

WATERPOLOA

2. Maila (gi)

URBAT - Metropole (bihar, 20:15)

Euskal Herria Liga (em)

Larraina - URBAT (etzi, 14:00)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila (em)

Pinguinos - EIBAR R.T. (etzi, 12:00)

Kirol albiste gehiagore webgunean





Antzerki Laborategirako aurrematrikulazioa hasi da

S.H. Astelehenean zabaldu zuten *Antzerki Laborategia* tailerrera aurrematrikulazioa, eta hilaren 25era arte eman ahalko da izena. Marmar Antzerki Taldearen eskutik egingo dira Udalak antolatutako tailerrak, Errebal Plazako lokaletan. Adin-talde ezberdinetara egokituta antolatu dituzte, elebitan izango dira eta, izena emateko, Udalaren webgunean eskuragarri dagoen formularioa bete beharko da. Informazio zehatza ere bertan kontsultatu daiteke.



Euskal Herriko Mus Txapelketaren Eibarko kanporaketa hilaren 30ean

S.H. Hasi da Euskal Herriko XVII. Mus Txapelketa, herriz herriko kanporaketekin. Otsailaren 22ra arte iraungo du fase horrek, eta hainbat herritan partidak jokatu dira dagoeneko. Eibarko urtarriaren 30ean jokatu da, Kili Kili tabernan 21:00etatik aurrera. Txapelketa honetan 50.000 euro baino gehiago banatuko dira sarietan, eta www.ehmus.eus webgunean eman daiteke izena (20 euro).



Zinemarako musika egiten jarraitzen du Arroita jauregi

S.H. Maite Arroita jauregi musikagilea Belgikan egon da aurreko asteburuan, lanean, Aritz Morenoren hurrengo pelikularentzat soinu-banda grabatzen. Zinema zuzendari donostiarraren azken lana *Karateka*, Sandra Sanchez Espainiako karate txapeldunaren bizitza eta ibilbidea kontatzen duen filma da, eta estreinaldia 2026ko urriaren 30erako dago aurreikusita. Eibartarra Malmodyn, Daft Music Studios-en aritu da grabatzen, jatorri ezberdineko musikoei osatutako lantaldearekin batera. Arroita jauregi (*Mursego*) konpositore eta sortzaile polifazetiko da, eta musika esperimental, ahotsa, biolontxelo eta elektronika uztartuta, berebera den estiloa dauka. Gainera, azken urteetan, zinemarako musikagile gisa ibilbide sendoa egin du.

Martitzen goizean aurkeztuko dituzte Eibarko Antzerki Jardunaldiak, Coliseo antzokian

S.H. Eibarko Antzerki Jardunaldien XLIX. edizioa ate-joka dauka, eta datorren astean emango dute ezagutzera aurtengo programazioa. Gaur egun Udalak antolatzen ditu Jardunaldiak eta martitzenean, urtarriaren 20an egingo du aurkezpena, 11:00etan Coliseon.





Jon Amorrorturen “Estali nazazu lorez” erakusketa

S.H. Gaurtik hasita hilabetez ikusi ahalko da Jon Amorrorturen *Estali nazazu lorez* erakusketa, Portalean. Artistaren berbetan, “bi urtez landu den proiektu piktoriko honek dolua, galera eta giza hauskortasuna aztertzen ditu, sormen-prozesuaren bitartez. Erakusketak ibilbide bisuala eskaintzen du kuaderno, azterlan eta formatu handiko lanen bidez, eta pintura eraldaketarako espazio bihurtzen da. Bodegoiak eta loreak memoria eta giza egoeraz hitz egiteko tresnak dira, eta obra geruzatan eraikitzen da, sormen-prozesua ikerketa piktorikoaren ardatz gisa hartuta”.



Rap kontzertua hartuko du Beleko tabernak zapatuan

S.H. Bihar (zapatua, hilak 17) rap kontzertua egingo da Bista Eder kalean dagoen Beleko tabernan, 21:00etatik aurrera. Ekitaldia The North School kolektiboarekin elkarlanean antolatu dute, eta bertan Emeka, Polo Opuesto, T90 eta ELC310 arituko dira. Ez da sarrearik kobratuko.



Eibarko 24. Korrika Batzordea gaur bilduko da

S.H. Martxoaren 28an, zapatu iluntzean igaroko da 24. Korrika Eibartik, eta hori antolatzen hasteko bilerara irekia antolatu du gure herriko 24. Korrika Batzordeak, gaur (barixakua, hilak 16) 18:00etan AEK euskaltegian. Bileran, besteak beste, Korrikaren ibilbidea aurkeztuko da, eta aldi berean eskualdean Korrika Batzordea antolatzeko lanari hasiera emango zaio. Horrekin batera, lekukoaren harrerari buruzko informazioa partekatuko da, egitarau kulturala osatzeko lehen urratsak emango dira, eta Korrika eguna bera antolatzeko ildoak zehaztuko dira. Antolatzailerik herritarrak parte hartzera animatu dituzte, eta hurrengo batzorde bilerak Mutrikun eta Soraluzen izango direla ere aurreratu dute.

Poesia errezitaldi irekia egingo da gaur Untzaga gizarte zentroan

S.H. “Poesía... eres tu”, Untzaga gizarte zentroko poesia taldekoek errezitaldi irekia antolatu dute gaurko (barixakua, hilak 16), 18:30ean Untzaga gizarte zentroan (erakusketa aretoan). Herritar guztiei zabalik egingo duten ekitaldian dozena bat lagunek hartuko dute parte, hainbat olerkirekin: Araceli Bono, Priscila Gil, M^a Jesus Saez, M^a Carmen Sanchez, M^a Eugenia Camara, Ernesto Barrutia, Manoli Corrales, Pilar Medina, Elisa Lopez, Elena Lopez, M^a Jesus Murillo eta Miriam Jaramillo, besteak beste. Atsedenaldirik, berriro, Lole Brocalek eskainiko duen bakarrizketarekin gozatzeko aukera izango du jendeak. Sarrera libre izango da, nahi duten guztientzat.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

				8		7		
8						9		3
		5	1		6		2	
	6	2	3					
7			4		2			9
					9	1	7	
	2		9		5	6		
5		7						4
		4		3				

SUDOKUA


6	9	4	2	3	7	5	8	1
5	3	7	6	1	8	2	9	4
1	2	8	9	4	5	6	3	7
4	5	3	8	6	9	1	7	2
7	8	1	4	5	2	3	6	9
9	6	2	3	7	1	8	4	5
3	7	5	1	9	6	4	2	8
8	1	6	7	2	4	9	5	3
2	4	9	5	8	3	7	1	6

8								
5	4	9	1	3	6	2	7	
6	2	8	9	7	5	3	4	1
1	3	7	4	2	8	5	6	9
4	8	3	2	6	9	7	1	5
9	5	1	8	6	3	7	2	4
2	7	6	5	1	4	9	8	3
8	9	5	3	4	2	6	1	7
3	6	4	7	5	1	8	9	2
7	1	2	6	8	9	4	3	5

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		2	6			4		
			7			8		
		5			2		1	
2		6				9	8	3
	5						2	
4	8	3				1		6
	3		4			5		
		8			5			
		9			6	2		

Labirintoa



Urtarrilak 16 - 22

BARIXAKUA 16

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Bi eta zortzi urte bitarteko haurrentzat jolasak, doan...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Txaltxa Zelai.

24. KORRIKA

18:00 24. Korrika batzordea Eibarren. AEK euskaltegia.



ZINE-FORUMA

18:30 "Una joven prometedora" (Zuz.: Emerald Fenell). Pagatxa emakume elkar-tearen eskutik. Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).



POESIA

18:30 Poesia errezitaldia, Untzaga gizarte zentroko "Poesia... eres tu" taldearen eskutik. Atsedenaldirik bakarrikzeta eskainiko du Lole Brocal-ek. Herritar guztiei irekia. Untzaga gizarte zentroa (erakusketa aretoa).

ANTZERKIA

19:00 "Desobedientes 18/98" (Tantaka Teatroa). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ZAPATUA 17

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30-20:30 Astelena Haur Parkea. 3 euro (doan EMGI-ren bonoarekin). Astelena frontoia.

ESKULANAK

11:00/13:00 Sei eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Plaza mugatuak (izen-ematea WhatsApp bidez, 614131174 zenbakian). Ipuruako merkatu plaza.

MUS TXAPELKETA

10:00/12:00 As Burgas Galiziako Etxeak antolatutako mus txapelketarako izen-ematea (bikoteak). Galiziako Etxea (bulegoan).

MANIFESTAZIOA

12:00 "HEL aurrera. Pentsio duinak guztientzat", Eibar-ko Pentsionisten Taldeak antolatuta. Untzaga. 14:30 Herri-bazkaria. Errebal Plaza.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

MUSIKA

19:00 Joshua Edelman Quintet. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



MUSIKA

21:00 Emeka, Polo Opuesto, T90 eta ELC310 rap kontzertua, Belekoko eta The North School kolektiboak antolatuta. Doan. Beleko taberna (Bista Eder, 2).



DOMEKA 18

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

MARTITZENA 20

ANTZERKI JARDUNALDIAK

11:00 Eibarko XLIX. Antzerki Jardunaldien aurkezpena. Sarrera librea. Coliseo.

BIDEO-FORUMA

17:00 Emakumeen Istorioak: Errepublikako maistrak, Pagatxa emakume elkar-tearen eskutik. Dinamizatzailea: Patricia P. Coto. Sarrera librea. Andretxea.

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa taldearen saioa: Uxue Alberdiren "Hetero". Dinamizatzailea: Ainhoa Al-dazabal. Eibarko Udal Liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Portalea (Batzartoki 1-2).

EGUAZTENA 21

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondatei buruzko informazio-zerbitzua, Ikastenen eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

EGUENA 22

HITZALDIA

10:00/12:00 "Tesoros de Florencia. El Renacimiento", Rikardo Aldamaren eskutik. Antolatzailea: Ikastena. Sarrera librea. Portalea.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emai-leentzat. Untzaga jubilatutxetxea.

ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 16tik otsailaren 16ra arte

"Estali nazazu lorez", Jon Amorrorturen pintura erakusketa. Portalea.

Urtarrilaren 30era arte
"Ikusi, entzun eta isildu" Atalanta Ares-en zeramika erakusketa. Andretxea.

Otsailaren 1era arte
"Errobera artean". Eibarko Armagintzaren Museoa.

ZINEA COLISEO



“La asistente”
THRILLERRA.
2025/AEB/131’
Zuzendaria: Paul Feig
Aktoreak: Sydney Sweeney,
Amanda Seyfried, Brandon
Sklenar
Thriller psikologikoa

1 ARETOA

- 17an: 16:30, 19:30
- 18an: 17:00, 20:00

ANTZOKIA

- 17an: 22:30
- 19an: 19:30



“El extranjero”
DRAMA.
2025/Frantzia/122’
Zuzendaria: François Ozon
Aktoreak: Benjamin Voisin,
Rebecca Marder, Pierre Lottin
Krimena. Drama judiziala/
Abokatuak

1 ARETOA

- 17an: 22:30
- 19an: 19:30



“Homo argentum”
KOMEDIA.
2025/Argentina/98’
Zuzendaria: Mariano Cohn,
Gastón Duprat
Aktoreak: Guillermo Francella,
Eva De Dominici, Clara Kovacic
Komedia beltza

2 ARETOA

- 17an: 19:45, 22:30
- 18an: 17:00, 20:00
- 19an: 19:30



“Extinción”
ANIMAZIOA. ABENTURAK.
2025/Malasia/85’
Zuzendariak: Moahmad Javad
Jannati, Hadi Mohammadian,
Behnoud Nekooei
Haurrentzako zinema.

2 ARETOA

- 17an: 17:00

ANTZOKIA

- 18an: 17:00

Joseba Zubiria Biain

1. URTEURRENA
2025/01/12

Urtebete pasata zure irribarreak eta maitasunak gure etxea eta bihotzak betetzen jarraitzen dute; zure melodia betiko gurekin dago”

Asko maite zaitugu, beti junto. Eskerrik asko bihotzez urte honetan jaso dugun maitasunagatik.

- Nagore, Ane, Markel eta familiak-

Francisco Beristain Albizu “Patxi”

8. URTEURRENA
2018/01/12

“Maite dugunaren argia ez da sekula emetatuko. Beti egongo zara gure bihotzetan. Asko maite zaitugu”

BERE ALDEKO MEZA egingo da urtarilaren 18an, domeka, 12:00etan, Karmeldarren Elizan.

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **MAIALEEN!** Urtarrilaren 3an 14 urte bete dozuz eta. Musu potoluak famelixakuen eta, batez be, Jonen partez!



Zorionak **LIBE** maittia! Urtarrilaren 20xan 8 urte egingo dozuz!! Jarraitu hain zoriontsu izaten! Zure famelixaren partez besarkada haundi bat.



Zorionak **IERA!** Eguaztenean 6 urte bete zenduaz eta. Etxeko printzesari musu eta besarkada haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak **AINHOA!** Gaur urteak betetzen dozuz eta. Musu haundia danon partez



Zorionak **XIKER!** Martitzenean, 11 urte bete zenduaz eta. Musu haundi bat etxe-kuan partez. Maite zaittugu!



Zorionak **JUNE!** Gure printzesak 2 urte beteko dittu domekan. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak **EIDEN!** Hillaren 20xan 9 urte beteko dozuz. Zorionak famelixa guztiaren partez.



Zorionak **ANDER!** Hillaren 20xan 7 urte beteko dozuz eta! Musu pillla famelixa guztiaren partez.



Ongietorri **IRATI!** Hillaren 8tik gure artian zaaz-eta. Musu pottolo bat famelixaren partez. Maite zaittugu.



Zorionak **ANER!** Eguaztenian urtiak bete zenduaz eta. Muxu haundi bat etxekuen, eta bereziki Liberen partez.



Zorionak **JANA** (urtarrilak 16) eta osaba **PABEN** (urtarrilak 17), Ondo ospatu zeuen egunak. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANDER!** Ondo ospatu gaur zure eguna famelixarekin eta lagunekin.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK
3.1. Salgai
• Garaje itxia salgai epaitegi azpiko garajeetan. 15 m2. Prezioa adosteko. 686 633 523.

4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak edota ume, zein nagusiak zaintzeko. Edozein ordu eta egunetan. 697295126.
• Gizona eskaintzen da zaintza lanak egiteko Mendaroko ospitalean, egunez eta gauez. 641844485
• Emakumea eskaintzen da goizez etxeak garbitzeko eta pertsonak zaintzeko. 641837075.
• Gizona eskaintzen da era askotako lana egiteko: zaintza lanak, sukaldaritza, erakuntza... 642383166.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxebizitzetan edota ospitaletan. Baita asteburuetan ere. Soziosanitario ziurtagiriarekin. 631 42 56 86
• Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko arratsaldean. Baita larunbatetan ere. Esperientzia, erreferentziak eta soziosanitario ziurtagiriarekin. 604120104.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, asteburu eta jai egunetan. Etxe edota ospitalean. 613287661.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, edozein egunetan. Etxe edota ospitalean. 632768653.

4.2. Langile bila
• Estetizista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ileapaindegik baterako. Lan giro bikaina. 943 20 81 25
• Emakumea behar da Eibarko etxe batean interna moduan lan egiteko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 685531040.

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• Pintura klaseak ume edota helduentzat. Umeak; 4 urtetik aurrera, helduak; edozein adinetakoak. Informazio gehiago www.maitearriaga.com . 668 51 68 93
• DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau lagunekin taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK
6.1. Salgai
• Logela osoa salgai: ohea (1,35), armairua, xifonierra eta mesanotxea. 600 66 72 65 (Nerea)

EMANALDIA
URTARRILAK 23
18:00 COLISEON



JASO GONBIDAPENAK DOAN

eta kitto!

Euskara Elkartean (943200918)



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizenziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontizian, Implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikian Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikian Diplomatua.
Autrian Instituta. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Okulsoan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**